



### ESKOLAKO OHARRAK

#### JANGELA

Datorren ikasturtetik aurrera, ohiko menuaz gain, menu begetarianoa, txerrikirik gabekoa, obolaktobegetarianoa eta obolaktobegetarianoa arrainarekin edukitzeko aukera izango duzue. Bestalde, ohikoa den bezala, Osakidetzako agiriarekin, alergiak dituzten ikasleen beharrak jaso eta kudeatu ditzakegu. Dударik izanez gero edo informazio gehiago nahi izanez gero, 943490193 telefono zenbakira deitu.



#### OPORRAK

Gaurtik, ostirala, hasi eta datorren irailak 9 bitarte, astelehena, ez da eskolarik egongo oporretan baikaude. Ikasturte hasieran, bukaeran bezala, irailak 9tik, irailak 20a bitarte, jardun jarraia izango dugu eta beraz, 15:00etan bukatuko dute jangelan bazkaltzen duten ikasleek, eta etxean bazkaltzen dutenek berriz, 13:00etan. Irailak 23tik aurrera, astelehena, goizez eta arratsaldez arituko gara ordutegi berriarekin. Ongi pasa oporretan!!

### GURASO ELKARTEKO OHARRAK

#### ZAPOREAK PROIEKTURAKO 6000 OTORDU

Ekainak 2an Errenteriako Euskal Eskola publikoaren jaietan, gure eskolako guraso eta irakasleak, ogitartekoak eta taloak egiten aritu ginen. Guk eta beste taldeek eskainitako otorduen zerbitzuetik 6000€ko etekina lortu genuen. Jaia publikotasunaren aldarrikapena egiteko den heinean, eta ez irabaziak lortzea, etekina Zaporeak proiektura bideratuko zela erabaki zen aurretik. Atzo, ekainak 20, Koldokide (Koldo Mitxelenako Guraso Elkarte), Elizaldeko Guraso elkarteak eta EHIGEek, Zaporeak proiektuari 6000€ak eman zizkien. Diru guzti honek Lesbosen dauden errefuxiatuei 6000 otordu emateko balio izango du.



Beraz, bihotzez eskerrak eman behar ditugu bertan lanean aritu zinetenei eta baita bertan bazkaldu zenutenei, bestela ezingo bait zen guzti hau lortu.

#### XANIXTEBANETAKO TABERNA

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkizuegu tabernan laguntzeko izen eman duzue guraso guztiei, hala ere, ez da nahikoa izango, horregatik oraindik garaiz zabilzate izen emateko: elizaldekogurasoelkarteamail.com edo 665737964. Hau dena egoki antolatu ahal izateko, ekaina amaieran edo uztaila hasieran bilera bat egingo dugu, lekua, eguna eta ordua telefono mugikor bidez jakinaraziko zaizue.

#### OPORRAK

Elizalde Guraso Elkartetik UDA ONA pasatzea opa dizuegu guztioi; eta ESKERRAK eman zuen lan, inplikazio eta ilusioagatik. Honela, guraso elkarte zabal eta parte hartzaile bat izatea lortuko dugu. Eskola GUZTIONA da eta aktiboki lan egiten jarraituko dugu, hobetu eta aurrera egiteko. Datorren ikasturterako indar berrituta eta proposamen berriekin itzuliko gara....

**DATORREN IKASTURTEAN INDARTSUAGO ETA PARTE HARTZAILEAGO HASIKO DUGULAKOAN.....ONDO PASA OPORRETAN!!!**



## **KANPOKO OHARRAK**

### **HHI/EPA**

Errenteriako HHI/EPA gurekin harremanetan jarri da. Datorren ikasturtean, gurasoei euskarazko saioak emateko aukera izango dute gure ikastetxean, ikasleak eskola orduan dauden bitartean. Zuen interesak hobeto ezagutu eta ordutegien kudeaketa egoki bat egin ahal izateko, deitu eskolako telefono zenbakira eta zuen lehentasunak jasoko ditugu.



[www.elizaldekogurasoelkarta.blogspot.com.es](http://www.elizaldekogurasoelkarta.blogspot.com.es) eta [www. elizalde.eus](http://www.elizalde.eus)

